



2008KO MAIATZAREN 14KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko maiatzaren hamalauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo eta Iñaki Saldaña Herrero.

Aktan adieraziko da Xanet Barreras Jauregi zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Felix Urkola Iriarte zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko apirilaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Xanet Barreras Jauregi zinegotzia bertaratu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (155.534,78 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- ARERIAKO EKIPAMENDU ESZENIKOAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikineko ekipamendu eszenikoaaren lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak, lan hauen bigarren egiaztagiria luzatu du. Bigarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST euro eta BERROGEI zentimotakoa (34.535,40 €) da. Lan hauek Chemtrol Division Teatro, S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta guztien adostasunarekin, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIAKO EKIPAMENDU ESZENIKOAREN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikineko ekipamendu eszenikoaaren lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak, lan hauen hirugarren egiaztagiria luzatu du. Hirugarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA SEIEHUN ETA LAU-



ROGEITA HAMAHIRU euro eta HAMASEI zentimotakoa (196.693,16 €) da. Lan hauek Chemtrol Division Teatro, S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta guztien adostasunarekin, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 07-01-002 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko hilean 91,28 € dirulaguntza ematea, maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Ifarra-Hegoa Lankidetza Programa.-

2008 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetza Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, honako dirulaguntza hauek onartzea:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Prelatura de Cametá	Cametá, Brasilen, "Ahaten haztegia Paysandun" proiekturako.	5.191,00 €
Karitas	Inan, Beninen, "Erabilpen desberdinak ezango dituen zentroa Sonoumon herrian" proiekturako.	12.509,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Rwanda, "Giharako herri eskolan gela berriak eraikitzeke egitasmoa" proiekturako.	9.200,00 €
Congregación de la misión, Padres Paules	La Barquita, Los Mina, Santo Domingo, Republica Dominicana. "Margarita Naseau lehen mailako eskola" proiekturako.	6.550,00 €
Mundo solidario helburu	Diriamba. Carazo. Nikaragua. "Gazte ezinduen gizarteratzea eta irisgarritasuna" proiekturako.	6.300,00 €
Monja Zistertarrak	Costa Rica. "Eskolako jangela eta zentruko zuzendaritza eta administrazioarentzako bulegoak eraikitzea" proiekturako	6.550,00 €
Asociación Paz Ahora	Palestinar emakume buruzagiek beste emakumeei laguntzen diete gai legalatan.	6.300 €
Saharako errefuxiatu kanpamentuak		3.204,19 €
Euskadiko Frente Polisarioen Ordezkaritza	"Oporrak bakean 2008" proiekturako.	2.370,00

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Gerriko ikerlan beka.-



"Goierriko egitura industrialaren erradiografia" liburuaren argitalpenerako dirulaguntza emateko Kultura Batzordeko Batzordeburuak aurkeztutako proposamena ikusi ondoren, Goierri Beheko Industrialdeak 1.250 €ko dirulaguntza eman duela kontutan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, berrehun eta berrogeita hamar euroko (250 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Beneditarren liburutegi eta artxiboa.-

Beneditarren liburutegi eta artxiboari, bere eguneroko jardunean sortzen diren mantenimendu gastuen ordainketarako Kultura Batzordeak egindako dirulaguntza proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, bi mila eta bostehun eurotako (2.500 €) ematea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



